

2017eko Kontratazio Memoria

KONTUHARTZAIETZA ETA AUDITORETZA
2018ko IRAILA



AURKIBIDEA

OR.

1	SARRERA.....	1
2	KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA.....	2
3	2017KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA.....	5
	3.1.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2017EAN ONARTUAK.....	6
	3.1.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA.....	6
	3.1.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA.....	6
	3.1.3.- PROZEDURAREN ARABERA.....	14
	3.1.4.- ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA.....	16
	3.2.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2017EAN GAUZATUAK.....	17
	3.2.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA.....	17
	3.2.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA.....	18
	3.2.3.- ESLEITU GABE GERATUTAKO LIZITAZIOAK.....	18
	3.2.4.- ATZERA EGINDAKOAK.....	19
	3.2.5.- ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA.....	19
	3.2.6.- ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA.....	20
	3.2.7.- ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK.....	36
	3.3.- 2017KO EKITALDIAN ONARTUTAKO ESPARRU-AKORDIOAK.....	36
	3.4.- GASTUAREN KUDEAKETARI LOTU GABEKO ONDARE KONTRATUAK....	37
	3.4.1.- ONDARE KONTRATUAK.....	38
	3.4.2.- BASO APROBETXAMENDUAK.....	38

ERANSKINAK

I. ERANSKINA	2017an onartutako kontratuak, kontratu motaren arabera.....	40
II. ERANSKINA	2017an onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren arabera.....	41
III. ERANSKINA	2017ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, departamentuen arabera.....	42
IV. ERANSKINA	2017ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, kontratu motaren arabera.....	71



1 SARRERA

Martxoaren 13ko 24/2001 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontratatzeko ahalmena baieztatzeko prozedura ezartzen duenak eta kontratu erregistroarekin zer ikusia duten zenbait gai arautzen dituenak, Kontu-hartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuari Foru Aldundiak egiten dituen kontratuak erregistratzeko eginkizuna esleitzen dio, baita eskatzen zaizkion eta bere eskumenekoak diren azterketa eta txostenak egitea ere.

Hori guztia betez, memoria hau aurkezten da Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean egindako kudeaketaren ikuspegi integral bat eskaintzeko.

Memoriak bi atal nagusi ditu:

1. Kontratazio alorrean Foru Aldundiari aplikagarri zaion araudiaren aipamen laburra.
2. Foru Aldundiaren 2017ko kontratuen kudeaketari buruz zerbitzu honetan dauden datuen azterketa. Ekitaldian lizitatu eta esleitutako kontratuen inguruko datu eta estatistikak ere jasotzen dira, eta konparazioak egiten dira aurreko urtearekiko.



2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA

◆ Kontratazio administratiboaren alorrean aplikagarria den legeria

2016ko ekitaldian honako legeria izan du aplikagarria Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean:

- 1.- Aurrenik, Estatuko Oinarrizko Legeria (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua). Oinarrizko legeria dira:
 - ⇒ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
 - ⇒ 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
 - ⇒ 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 2.- Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomikoa ere aplikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11. artikulua Estatuko oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan garatu eta exekutatzeko eskumenak esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, kontratazioari dagokionez.

Gaiari buruzko araudi autonomikoa, nagusiki, honako xedapenen bidez gauzatu da:

- ⇒ 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
 - ⇒ 12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzkoa.
 - ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko Kontseilariarena, Kontratisten Erregistro ofizialaren funtzionamendu arauak ezartzekoa.
 - ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko Kontseilariarena, Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak ezartzekoa.
 - ⇒ 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio araubideari buruzkoa.
- 3.- Azkenik, ordezko izaeraz, zuzenbide pribatua ere da aplikagarria.



◆ **Kontratazio administratiboan aplikagarria den foru araudia**

Lurralde historikoak ez du eskumenik kontratazio administratiboaren alorrean, salbu eta bere Administrazio organoen eskumenei dagozkien, eta, beraz, Autonomia Estatutuak 37. artikuluan aitortuta duen auto-antolaketa eskumenaren barruan sartzen diren gaitan. Atal honetan xedapen hauek aipatu behar dira:

- ⇒ Martxoaren 26ko 3/2002 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, kontratazio eta erosketa zentralizatuko kredituei dagokionez hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Bertan jasotzen denez, kudeaketa zentralizatuko kredituetan, kontratuak tramitatzea eta obligazioak baimendu, konprometitu eta onartzea, proposamenak organo eskudunari helarazita kredituen zenbatekoaren arabera, kudeaketa zentralizatua agindua duten departamentuei dagokie, Diputatuen Kontseiluak ezartzen dituen prozedurei jarraituz.
- ⇒ 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- ⇒ 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeko dena.
- ⇒ 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoa.
- ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen egitura organiko eta funtzionala onartzen dituzten foru dekretuak.
- ⇒ 24/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratuen Erregistroa sortu eta kontratistak kreditatzeko prozedura arautzen duena.
- ⇒ 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duena.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa, administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzkoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru



Aldundiaren esparruko kontratuetan eta diru-laguntzetan sartzea onartzen duena.

- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2012ko urriaren 16koa, lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloko naiz izaera sozialeko baldintzak: Gipuzkoako Foru Aldundiak esleitu eta egiten dituen obra kontratu guztietan sartu beharrekoak onartzen dituena.
- ⇒ Diputauen Kontseiluaren Erabakia, 2017ko ekainak 26koa, Adingabeen babeserako klausulak: Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabeekin ohiko harremana eskatzen duten zerbitzuak edo prestazioak kontratazio prozedura guztietan sartu beharrekoak onartzen dituena.



3 2017KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA

Memoria honetan jasotzen diren kontratuak hautatzeko, irizpide hauei jarraitu zaie:

1. Barruan sartu dira Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginari lotuta 2017eko ekitaldian prozedura irekia edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz lizitatu diren administrazio-kontratu guztiak (ekitaldi honetan tramitatutako prozedura bakarrak), bai eta kontratu pribatuak ere. Esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak prozedura negoziatuen barruan sartu dira.

2. Barruan sartu dira ondare-kontratuak (salerosketak, GFKko ondasun ondare doako eta ordain trukeko lagapenak edo alokailuak, kasu), sarreraren kudeaketarekin lotutako kontratuak eta baso-ustiapenen lizitazioak.

3. 2017. urtean onartutako kontratuaren datuak kontratazio espedientearen urte horretan baimendua duten prozesuei dagozkie.

4. Esleipenei buruzko datuetan 2017. urtean egindako esleipenak sartu dira, kontratua ekitaldi horretan edo aurrekoetan onartu den kontuan hartu gabe.

5. Esleipen kopurua lotei buruzkoa da, ez kontratuei buruzkoa. Horren arrazoia da zenbait kontratutan xedea lotetan banatuta dagoela eta lote bakoitzak esleipen eta exekuzio autonomoa ditu kontratuaren gainerako loteen aldean. Zerrendak eta estatistikak prestatzerakoan lote kontzeptuarekin egin behar da lana, eta ez, ordea, kontratu kontzeptuarekin.

6. Memorian jasotzen diren zenbateko guztiak, bai onartutako kontratuarenak eta bai esleitutako loteenak, BEZarekin datoz beti, eta kontratu nagusiaren aurrekontuari dagozkio, egon litezkeen luzapenak aintzat hartu gabe. Hala ere, jaso gabe utzi dira prezio unitarioen arabera onartutako kontratuaren zenbatekoak, departamentuek zenbateko osoei buruzko daturik eman ez dutelako.

7. Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaiak kudeatutako esparru-akordioak (kudeaketa zentralizatuko gastuei buruzko kontratuak) eta Kontratazioaren Zentralak kudeatutakoak bereizita eta zenbateko osoaren arabera banatuta aurkezten dira. Zentralak tramitatutako esparru-akordioak Foru Aldundiak, gainerako foru sektore publikoko erakundeek eta Gipuzkoako udal sektore publikoak egindako kontratazio espedienteak izan daitezke.

8. Baimendu eta esleitutako kontratuaren artean esparru-akordioetatik eratorritako kontratuak ere sartu dira.

9. Aurreko ekitaldietan bezala, kontratu txikien prozeduraz tramitatutako kontratuak ez dira sartu memoria honetan.

2017ko ekitaldian 249 kontratazio espediente onartu dira, 172.780.991,65 euro guztira. Ondorengo ataletan, espediente horien banaketa aztertzen dugu hainbat irizpideren arabera.



3.1.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2017EAN ONARTUAK

3.1.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak arautzen dituen kontratu mota desberdinak kontuan hartuta, 2017an onartutako kontratuek banaketa hau ageri dute:

KONTRATU MOTA	Kop.	%	Zenbatekoa	%
Obrak	53	21,29	25.270.802,48	14,63
Hornidurak	25	10,04	23.141.991,15	13,39
Zerbitzuak	169	67,87	123.978.413,02	71,75
Pribatuak	2	0,80	389.785,00	0,23
GUZTIRA	249	100	172.780.991,65	100

Kontratu kopuruari begiratuta, zerbitzuen kontratuak nagusitu egin dira, alde handiz, besteen gainean, 2017an lizitatutako guztien % 67,87 hartzen baitute. Jarraian, obra kontratuak daude, kopuru osoaren gainean % 21,29 baitira. Hirugarren tokian hornidura kontratuak ageri dira, haien portzentajea kopuru osoaren % 10,04 baita.

Ikuspegi ekonomikotik, zerbitzu kontratuak dira nagusiak, aurrekontuaren % 71,75 hartzen dutelako. Ondoren, obra kontratuak datoz (zenbateko osoaren % 14,63).

3.1.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA

Departamentuek onartu dituzten kontratuen kopuruari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da Bide Azpiegituretako Departamentuak besteek baino kontratu gehiago tramitatu dituela (kopuru osoaren % 22,49). Jarrain Diputatu Nagusiaren Alorra % 14,46rekin; Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua % 12,85arekin eta Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua % 11,24rekin.


Gastu baimenduari dagokionez, nabarmentzekoa da Bide Azpiegituretako Departamentua, haren gastu bolumena 2017ko ekitaldiko kopuru osoaren % 38,61 baita. Jarraian Kudeaketa Zentralizatua eta Kontratazioen Zentrala % 30,10arekin eta Gizarte Politika Departamentua % 20,10arekin. Gainerako departamentuak ez dira % 3ra iristen.




2017AN ONARTUTAKO KONTRATUEN BANAKETA, DEPARTAMENTUKA

	Kop,	%	ZENBATEKOA	%
Diputatu Nagusia	36	14,46	3.988.147,08	2,31
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	32	12,85	4.727.364,17	2,74
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	14	5,62	1.803.495,57	1,04
Ekon. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	12	4,82	834.467,90	0,48
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	18	7,23	2.245.428,19	1,30
Ogasuna eta Finantzak	5	2,01	568.848,87	0,33
Bide Azpiegiturak	56	22,49	66.711.321,98	38,61
Gizarte Politika	22	8,84	34.728.881,91	20,10
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	28	11,24	5.160.161,78	2,99
Kudeaketa Zentralizatua eta Kontratazioen Zentrala	26	10,44	52.012.874,20	30,10
GUZTIRA	249	100	172.780.991,65	100

ONARTUTAKO KONTRATU KOPURUAREN BANAKETA



BAIMENDUTAKO GASTUAREN BANAKETA



Jarraian, departamentuz departamentu xehatuko dugu informazioa.

Diputatu Nagusia

2017ko ekitaldian 36 kontratazio espediente onartu dira (3.988.147,08 euro guztira), hau da, ekitaldian hasitako kontratuetarako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren % 2,31.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Zerbitzuak	36	100	3.988.147,08	100

Departamentu honek zerbitzu kontratuak erabili ditu soilik.

2017ko ekitaldian “Aholkularitza integraleko zerbitzuak Etorkizuna Eraikiz ekimeneko agenda politika berria dinamizatu eta exekutatzeko” kontratua nabarmentzen da, 1.199.531,08 €ko lizitazio prezioarekin. Beste bi kontratu, “Aholkularitza eta idazkaritza teknikoko zerbitzuak, lan esparruko berdintasun politiken alorreko proiektuak bultzatzeko metodologia identifikatzea ahalbidetuko duten ikerketa eta hausnarketa ekimenak egiteko” eta “Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenak eta jarduerak gipuzkoarrei ezagutarazteko aholkularitza estrategikoa” 217.800 € eta 205.821 € lizitatu ziren hurrenez hurren.



Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola

Departamentu honek 32 kontratu onartu zituen iaz, honela banatuta:

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	2	6,25	367.700,31	7,78
Hornidurak	2	6,25	99.458,00	2,10
Zerbitzuak	27	84,38	4.175.505,86	88,33
Pribatuak	1	3,13	84.700,00	1,79
	32	100	4.727.364,17	100

Eman dizkiguten datuen arabera, departamentu honek tramitatu dituen kontratu gehienak zerbitzu kontratuak dira, eta kontratu modalitate horretan baimendutako gastu bolumena zenbateko osoaren % 88,33 inguru da.

Copuruarengatik museoei buruzko hiru kontratu nabarmentzen dira: Untzi museoa, 841.244,88 € lizitazio prezioa duela; Igurtubeiti, 729.854,23 €rekin eta Zumalakarregi, 669.612,92 €rekin. Beste hiru kontratu berrehun mila eurotik gorakoak dira ("Koldo Mitxelena Kulturunea liburutegiaren dokumentazioaren zaintza, digitaizatzea eta OCR zerbitzuak", 223.342,75 €koa; "Tolosan kokatzen den Gipuzkoako Artxibo Orokorren suteak itzaltzeko sistema automatiko baten instalakuntza eta martxan jartzea" 240.185 €koa eta "Sagardoaren kulturaren eta Gipuzkoako sagardotegien turismo sustapena kontratatzeko espedientea, sustapen ekintzen eta publizitate kanpainen bidez" 219.978 €koa.

Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa

Departamentu honek 14 kontratazio espediente onartu ditu 2017an, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	1	7,14	232.413,22	12,89
Hornidurak	6	42,86	1.152.422,35	63,90
Zerbitzuak	7	50,00	418.660,00	23,21
	14	100	1.803.495,57	100



“Suhiltzaile zerbitzurako auto-eskailera ibilgailu baten hornidura”, 660.000 €ko zenbatekoarekin eta “Gipuzkoako suhiltzaileen komunikazio zentroaren proiektuari buruzko lanak” 232.413,32 €koa nabarmendu daitezke.

Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka

Departamentu honek 12 espediente onartu ditu 2017an urtean zehar, eta 834.467,90 euroko aurrekontua lizitatu du. Zerbitzuen kontratua da gehien erabili dena: 16 espediente. Orobat, kontratu kategoria honetan baimendu den zenbatekoa departamentuak baimendutako gastu osoaren % 92,50 da.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Hornidurak	1	8,33	62.545,00	7,50
Zerbitzuak	11	91,67	771.922,90	92,50
	12	100	834.467,90	100

“Gipuzkoako Lurralde Historikoko animalia hilak eraldatu eta suntsitzeko zerbitzuak. 2017” 193.600 €ko zenbatekoarekin nabarmentzen da.

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa

Departamentu honek 18 kontratazio espediente onartu ditu 2017an, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	4	22,22	1.245.977,19	55,49
Zerbitzuak	14	77,78	999.451,00	44,51
	18	100	2.245.428,19	100

Departamentu honetan gehienez zerbitzu kontratuak onartu dira.

Bere lizitazio prezioagatik ondorengo kontratu hauek nabarmentzen dira: “Donostian Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregieko estalkia birgaitzea; obra”, 698.103,03 €koa; “Legorretako Paelera Amarozen Enpresaren instalazioetako amiantoa erretiratzeko eta hondakinak kudeatzeko lanak” 241.940 €koa eta “Bergara eta Urretxu arteko bide berdeko Iraetako tunela (Antzuola) egonkortzeko proiektuko obrak”, 229.934,66 €koa.



Ogasuna eta Finantzak

2017ko ekitaldian 5 kontratazio espediente onartu dira (568.848,87 euro guztira), ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren % 0,33.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Hornidurak	1	20,00	98.340,21	17,29
Zerbitzuak	4	80,00	470.508,66	82,71
	5	100	568.848,87	100

“Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamenduko egoitza nagusiaren eta bulegotan segurtasun eta suteen aurkako babes-instalazioen mantentze lanak egiteko zerbitzuen kontratazioa” kontratua nabarmentzen da, 161.544,84 €ko zenbatekoarekin.

Bide Azpiegiturak

Departamentu honek 56 kontratu onartu zituen aurreko ekitaldian, honela banatuak:

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	36	64,29	18.199.312,31	27,28
Zerbitzuak	20	35,71	48.512.009,67	72,72
	56	100	66.711.321,98	100

Kontratu moten arabera aztertuta, beren zenbatekoagatik zerbitzu kontratuak nagusitu dira, departamentu honek ekitaldiaren arabera lizitatutako zenbateko osoaren % 72,72 metatzen baitute. Kopuru haundienengo loteak ondorengo hauek dira:

- Eskualde sareko eta sare lokaletako errepide eta bizikleta bideen artapan eta sustapen zona A (ekialdea): 10.938.346,05 €.
- Eskualde sareko eta sare lokaletako errepide eta bizikleta bideen artapan eta sustapen zona B (mendebaldea): 9.904.639,90 €.
- Higerreko Itsasargira doan G-3661 errepidea, 2,100 eta 2,45 kpan artean, egonkortzeko proiektuko obrak: 3.148.941,49 €.
- Ondaraldeko Poligonotik Zegamako herrigunerako bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko eta GI-2634 errepidea hobetzeko proiektua: 1.557.004,55 €.



- N-634 errepideko 41,950 eta 42,075 Kpren artean oin-horma egonkortzeko proiektua: 1.482.727,67 €.
- N-1 errepideko 416,105 eta 420,350 kilometro puntuen artean, Gasteiz-Irun noranzkoan, bidezoruaren egitura birgaitzea.: 1.298.348,44 €.
- Aldundiaren eskualde sareko eta sare lokaletako errepideetan metalezko segurtasun hesiak jartzeko zerbitzua kontratatzeko: 1.214.399,85 €.
- Aldundiaren ahalmen handiko sareko errepideetan seinale horizontalak margotzeko zerbitzua: 1.209.811,82 €.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareko egiturak konpontzeko zerbitzuak: 1.196.527,53 €.
- Sare lokaletako errepideetan bide-zoruaren egitura birgaitzeko lanak: 1.050.605,40 €.

Gizarte Politika

Departamentu honek 22 kontratu onartu ditu 2017ko ekitaldian, eta 34.728.881,91 euroko aurrekontua lizitatu du guztira.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	4	18,18	1.793.885,53	5,17
Zerbitzuak	18	81,82	32.934.996,38	94,83
	22	100	34.728.881,91	100

2017. urtean hamar izan ziren miloi eurotik gorakoak lizitazio prezioan:

- Desgaitasun balioesteko eta mendekotasuna balioesteko eskaera egiten duten pertsonen buruzko informazioa eskuratzeko behar diren txosten mediko eta psilogikoak osatzeko zerbitzua: 6.494.537,34 €.
- Donostiako Txara I. Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako egoitza: 6.253.517,51 €.
- Berio egoitza zentroa eta eguneko zentroa: 4.631.439,99 €.
- Ala-Etxe egoitza zentroa: 4.166.888,25 €.
- Gizarte Politikako Departamentuari haurren eta nerabeen babesgabetasun egoerak boloratzeko proposamenak egiteko eta babesgabetasun arrisku larriko egoerak koordinatzeko laguntza teknikoa emateko zerbitzua: 3.130.488,72 €.
- Etxebizitza lagunduak garun paralsiaren diagnostikoa eginda eta desgaitasun fisiko-psikikoa duten pertsonentzat: 1.905.525,82 €.



- ❑ Etxebizitza lagunduak espektro autistaren nahasmenduaren diagnostikoa eginda eta desgaitasun psikikoa duten pertsonentzat: 1.290.115,80 €.
- ❑ Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte larrialdietarako koordinazioko foru zerbitzua: 1.187.535,38.
- ❑ Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte larrialdietarako koordinazioko foru zerbitzua: 1.187.509,09 (*ATZERA EGINDAKOA*).
- ❑ Donostiako Maldatxo eta Arrasateko Erguin errehabilitazio psikosozialeko zentroetan buruko nahasmendu larria duten pertsonentzako zerbitzua: 1.033.595,70 €.

Ingurumena eta Obra Hidraulikoak

Guztira, 28 kontratu onartu ditu departamentu honek 2016an, 5.160.161,78 euro rotara.

KONTRATUAK	Kop.	%	ZENBATEKOA	%
Obrak	5	17,86	3.348.507,92	64,89
Zerbitzuak	23	82,14	1.811.653,86	35,11
	28	100	5.160.161,78	100

Departamentu honetan “Bailarraingo saneamendua gauzatzeko eta GI-3851 errepidea 1+350 eta 2+010 kilometro puntuen artean zabaltzeko proiektuan jasotako lanak egitea” 1.484.116,53 €ko lizitazio zenbatekoarekin eta “Gipuzkoako Agiritegi Nagusiaren birgaitze energetikoko proiektuaren lanen exekuzioa” 1.341.404,27 €ko lizitazio zenbatekoarekin kontratuak nabarmentzen dira.

Beste bi kontratu 200.000 €tik gorakoak dira, “Gipuzkoako ingurumen guneko balorizazio energetikoko instalaziori dagokion azterketa epidemiologiko bat idazteko lanetan laguntza zerbitzuak” 544.500 € eta “Uliazpi Fundazioaren Fraisoro Zentroko eguzki-instalazio termikoaren obrak” 216.743,84 €.

Kudeaketa zentralizatua

Tipologia honetan, kudeaketa eta kontratazioa Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak egiten ditu Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuak araututako, edo Foru Kontratazio Zentralaren bitartez.



	Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaia	Kontratazioen Zentr. Hitzarmen esparrutik eratorriak	GUZTIRA
Obrak	1 83.006,00 €		1 83.006,00 €
Hornidurak	11 1.315.535,00 €	4 20.413.690,59 €	15 21.729.225,59 €
Zerbitzuak	4 3.754.641,07 €	5 26.140.916,54 €	9 29.895.557,61 €
Privado	1 305.085,00 €		1 305.085,00 €
GUZTIRA	17 5.458.267,07 €	9 46.554.607,13 €	26 52.012.874,20 €

Kontratuen zenbatekoari erreparatuta, hauek nabarmentzen dira:

- Foru Aldundiko eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko esparru akordiotik eratorritako kontratua: 23.958.000 €.
- Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzeko esparru akordiotik eratorritako kontratua: 18.604.492,84 €.
- Telefono bidezko komunikazioen zerbitzua: 2.951.790 €.
- Bizitza eta istripu aseguru kolektiboen kontratazioa: 1.114.843,18 €.

3.1.3.- PROZEDURAREN ARABERA

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginak eskema hau ezarri zuen administrazio kontratuak esleitzeko prozedurei dagokienez:

IREKIA

MURRIZTUA

NEGOZIATUA:

- publizitatearekin
- publizitaterik gabe

Lehia-elkarrizketan, kontratazio organoak elkarrizketa bat antolatzen du hautatutako izangaiekin, horiek hala eskatu ondoren, haien premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko, eta irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako izangaiek



eskaintza bat aurkez dezaten. Esan behar da prozedura murriztua ez dela erabili Gipuzkoako Foru Aldundiko ezein espedientetan, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

2017. urtean, Foru Aldundiak bi prozedura erabili ditu kontratuen esleipena tramitatzeko¹. Ondoko taulan ikusgai jartzen dugu nola banatzen diren onartutako kontratuak esleipen prozeduraren arabera:

DEPARTAMENTUA	IREKIA			NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE		
	KONT. KOP.	ZENBATEKOA		KONT. KOP.	ZENBATEKOA	
		%	€		%	€
Diputatu Nagusia	8	22,22	2.304.357,08	28	77,78	1.683.790,00
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	6	18,75	3.082.705,03	26	81,25	1.644.659,14
Gobernantza eta Gizartear. Komunikazioa	1	7,14	800.000,00	13	92,86	1.003.495,57
Eko. Sust., Land Ingur. eta Lurralde Oreka	1	8,33	62.545,00	11	91,67	771.922,90
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	5	27,78	1.203.731,03	13	72,22	1.041.697,16
Ogasuna eta Finantzak	3	60,00	367.374,03	2	40,00	201.474,84
Bide Azpiegiturak	28	50,00	62.436.535,14	28	50,00	4.274.786,84
Gizarte Politika	14	63,64	33.912.826,40	8	36,36	816.055,51
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	5	17,86	3.663.150,80	23	82,14	1.497.010,98
Kudeaketa zentralizatua	4	15,38	19.923.557,84	22	84,62	32.089.316,36
GUZTIRA	75	30,12	127.756.782,35	174	69,88	45.024.209,30

Goiko taulan jasotako datuei erreparatzen badiegu, alde batetik ikusten da prozedura irekia erabiliz 75 kontratu lizitatu direla, kontratu kopuru osoaren % 30,12 eta baimendutako gastu osoaren % 73,94.

Bestetik, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz 174 kontratu lizitatu dira, kopurua osoaren % 69,88 baina lizitatutako zenbateko osoaren % 26,06 baino ez.

Aurreko kopuruek iragarkirik gabeko prozedura negoziatuaren pisuaren igoera erakusten dute, kontratu kopurua eta gastua, aurreko urtearekin alderatuta, nabarmenki haunditzen direlarik.

¹ Ikus memoria honen II. eranskinean, 2017ean onartutako kontratuen xehetasuna, esleipen prozeduraren arabera.



Datu hauen arabera, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gizarte Politikako Departamentuak soilik prozedura irekia negoziatua baino geiagotan erabili dute kontratuen esleipenetan.

DEPARTAMENTUA	NEGOZIATUA, PUBLIZITATERIK GABE Emandako argudioak		
	Kopurua	Beste arrazoi batzuk	Guztira
Diputatu Nagusia	28		28
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	24	2	26
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	13		13
Ekon. Sust., Landa Ing. eta Lurralde Oreka	10	1	11
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	13		13
Ogasuna eta Finantzak	1	1	2
Bide Azpiegiturak	28		28
Gizarte Politika	8		8
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	23		23
Kudeaketa zentralizatua	12	10	22
GUZTIRA	160	14	174

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko arrazoi nagusia kontratuaren zenbatekoa izan da, zehazki izapidetu diren 174 espedienteetatik 160tan.

Gainerako beste hamalauetatik bitan arrazoi teknikoak argudiatu dira, lanak enpresari bakar bati esleitzera eraman dutenak (Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 170.d); bat isilpekoa edo ezkutukoa, bere egikaritzapena segurtasun neurri bereziekin joan behar du, (170 f art.); bat lehiaketa batengatik (174 d art.) eta besteak esparru akordioen ondorioz.

3.1.4.- ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren arabera, kontratazio prozedura hiru modutan izapidetu daiteke: arrunta, premiazkoa eta larrialdikoa.

2017ko ekitaldian, ez da izapide premiazko edo larrialdiko espedienterik.



3.2.- GASTUA KUDEATZEKO KONTRATUAK, 2017EAN GAUZATUAK

Memoria honen hasieran adierazi dugunez, 2017. urtean esleitu diren kontratuen barruan ekitaldi horretan egindako esleipenak sartzen ari dira, alde batera utzita kontratua aurreko ekitaldian onartu den edo ez.

Txosten honen hasierako oharretan adierazitakoa gogoratuz, 2017. urtean egindako esleipenen datuak banakatuta ematen direnez, esleipenak lote esleituaren kopuruarenak dira, hau da, esleitutako loteen kopurua handiagoa da esleitutako kontratuena baino.

Zehazki, 2017. urtean esleitutako 234 kontratuak (haietatik 5 kontratu 2016ean onartu ziren) 241 lote dira guztira, 94.357.876,00 euro.

Horien artean, kopuruagatik hurrengo lau hauek nabarmentzen dira:

- Foru Aldundiko eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzekeo esparru akordiotik eratorritako kontratua → 18.955.312,31 €.
- Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzekeo esparru akordiotik eratorritako kontratua → 16.032.747,47 €.
- Eskualde sareko eta sare lokaletako errepide eta bizikleta bideen artapan eta sustapen zona A (ekialdea) → 8.017.807,66 €.
- Eskualde sareko eta sare lokaletako errepide eta bizikleta bideen artapan eta sustapen zona B (mendebaldea) → 7.369.052,06 €.

3.2.1.- TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak arautzen dituen kontratu motei begiratuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017an esleitutako loteak honela banatzen dira:

KONTRATU MOTA	KOP.	%	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA	%
Obrak	51	21,16	19.766.440,71	20,95
Hornidurak	23	9,54	18.633.941,28	19,75
Zerbitzuak	165	68,46	55.617.617,01	58,94
Pribatuak	2	0,83	339.877,00	0,36
GUZTIRA	241	100	94.357.876,00	100

Ikuspegi ekonomikotik, zerbitzu kontratuak nagusitu dira, 2017an lizitatutako aurrekontuaren % 58,94 hartu dutelako, hau da, kopuru osoaren % 68,46. Ondoren, obra kontratuak datoz, zenbateko osoaren % 20,95rekin eta kopuru osoaren % 21,16rekin. Hirugarrenik, hornidura kontratuak % 19,75 zenbatekoari erreparatuta eta % 9,54 kopurua kontuan hartuta.



3.2.2.- TRAMITATZEN DUEN DEPARTAMENTUAREN ARABERA

Esleitutako loteei buruzko datuek agerian jartzen dute 2017an Bide Azpiegituretako Departamentuak esleitu duela lote kopururik handiena, kopuru osoaren % 21,99. Jarraian Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamendua % 15,35arekin, Diputatu Nagusia % 14,11rekin, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamendua % 11,62rekin eta Kudeaketa Zentralizatua eta Kontratazio zentrala % 11,20rekin. Gainerako departamentuak ez dira % 10era iristen.

Xedatutako gastuari erreparatuta, Kudeaketa Zentrala eta Kontratazio Zentrala eta Bide Azpituretako Departamendua nabarmentzen dira 2017. ekitaldiko gastu bolumenaren % 43,41 eta % 36,66 adireztan dutelarik hurrenez hurren. Gainerako departamentuak ez dira % 5era iristen.

DEPARTAMENTUA	Kop.	Kop. os/%	Esleipen zenbatekoa	Kop. os/%
Diputatu Nagusia	34	14,11	2.500.411,08	2,65
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	37	15,35	4.697.903,67	4,98
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	13	5,39	973.612,24	1,03
Ekon. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	12	4,98	824.161,39	0,87
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	17	7,05	1.847.738,99	1,96
Ogasuna eta Finantzak	7	2,90	1.314.741,45	1,39
Bide Azpiegitureak	53	21,99	34.591.436,61	36,66
Gizarte politika	13	5,39	2.387.013,43	2,53
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	28	11,62	4.259.312,35	4,51
Kudeaketa zentralizatua eta Kontratazio Zentrala	27	11,20	40.961.544,80	43,41
GUZTIRA	241	100	94.357.876,00	100

3.2.3.- ESLEITU GABE GERATUTAKO LIZITAZIOAK

Atal honetan aipatuko dugu zer lizitazio geratu diren, hainbat arrazoiren ondorioz, esleitu gabe 2017an.

Zentzu honetan, erregistratutako datuetan hutsik gelditutako lote bakarra agertzen da: Pasaiko Portuko marinelentzako ostatu zerbitzua.



3.2.4.- ATZERA EGINDAKOAK

KONTRATUA	ZENBATEKOA
<i>Arrazoa</i>	
Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren museoen kudeaketa integrala	
<i>Diputatuen Kontseiluan lizitazio aurrekontuan ikusitako akatsa. Hau konponduta beste lizitazio prezesu bat hasten da.</i>	
Lurralde Historikoan gizarte larrialdietarako koordinazioko foru zerbitzua. <i>2017/10/31 Diputatuen Kontseiluaren AkordioA 2017-11-16 GAO</i>	1.187.509,10

3.2.5- ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA

2017. urtean batez beste % 18,82ko beherapena izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen esleipenetan, eta horrek 21.869.535,77 euro aurreztea ekarri du. Portzentaje hori honela banatzen da:

DEPARTAMENTUA	BEHERAPE N %	ZENBATEKOA
Diputatu Nagusia	8,20	223.204,92
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	3,40	165.585,58
Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa	2,94	29.520,43
Ekon. Sust., Landa Ingur. eta Lurralde Oreka	1,22	10.215,51
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	13,74	294.199,90
Ogasuna eta Finantzak	6,47	90.949,18
Bide Azpiegiturak	20,97	9.180.191,24
Gizarte Politika	17,88	519.646,18
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	17,46	900.849,43
Kudeaketa zentralizatua	20,33	10.455.173,40
GUZTIRA	18,82	21.869.535,77

Aurreko taulan ikus daitekeenez, departamentu bakoitzeko lizitazioen batez besteko beherapen portzentajeak Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuan izandako % 1,22tik Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuan izandako % 20.97 eraino doaz.

Departamenduetan kontratuetan lortutako beherapenak suposatzen duten aurrezpenari begiratzen badiogu, Kudeaketa Zentralizatua eta Bide Azpiegituretako



Departamentua nabarmentzen direla baeizatzen dugu 10.455.173,40 eta 9.180.191,24 eurotako beherapena batzen bait dute bere lizitazioetan.

KONTRATU MOTA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Obrak	18,33	4.436.966,09
Hornidurak	13,28	2.854.545,87
Zerbitzuak	20,71	14.528.115,81
Pribatuak	12,80	49.908,00
GUZTIRA	18,82	21.869.535,77

Ehunekoaren arabera, zerbitzuko kontratuek beherapen haundiena dute eta jarraian obrakoek % 18,33arekin.

Kontratu mota bakoitzean aurreztutako zenbatekoari erreparatuta, ikusten dugu berriro zerbitzu eta obra kontratuak direla aurrezpen handienekoak: 14.528.115,81 eta 4.436.966,09 euro, hurrenez hurren.

Miloi eurotik gorako beherapena erregistratu duten bost txosten nabarmentzen dira:

- Foru Aldundiko eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzekeo esparru akordiotik eratorritako kontratua → 5.002.687,69 € (Beherapena: 20,88 %).
- Eskualde sareko eta sare lokaletako errepide eta bizikleta bideen artapan eta sustapen zona A (ekialdea) → 2.920.538,39 € (Beherapena: 26,70 %).
- Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzekeo esparru akordiotik eratorritako kontratua → 2.571.745,37 €. (Beherapena: 13,82 %).
- Eskualde sareko eta sare lokaletako errepide eta bizikleta bideen artapan eta sustapen zona B (mendebaldea) → 2.535.587,84 €. (Beherapena: 25,60 %)
- Telefono bidezko komunikazioen zerbitzua (Foru aldundia eta beste erakundeentzako esparru akordioa) → 1.919.825,72 € (Beherapena: 65,04 %).

3.2.6.- ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA

Atal honetan aztertzen da zer irizpide ezartzen dituzten departamentuek beren baldintza agirietan kontratuak esleitzeko. Azterketa egiteko, prozedura ireki bidez esleitutako loteak bakarrik hartu dira. Izan ere, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, Kontratuen Erregistroan ez dago daturik esleipenik izan ez duten gainerako eskaintzei buruz. Kanpoan geratu dira, baita ere, prezio unitarioen arabera esleitutako kontratuak, haien kasuan ere informazio hori ez dugulako.

Esleipena eskaintzarik onuragarrienaren alde egin beharra dago, klausula administratibo partikularren agirian ezarritako balorazio irizpideak behar bezala ponderatu eta aplikatu ondoren. Normalean, departamentuek esleipen irizpide bat



baino gehiago hartzen dute kontuan kontratuak esleitzeko, eta, beraz, horrek esan nahi du esleipena ez dela zertan egin eskaintza merkeenaren alde. 2017an onartutako klausula administratibo partikularren agiriak aztertu ondoren, saiatu gara zerrenda batean jasotzen antzekoak izan daitezkeen esleipen irizpideak, eta honela laburtu ditzakegu:

- ◆ proposamen ekonomikoa
- ◆ ezaugarri teknikoak: metodologia
- ◆ ezaugarri teknikoak: funtzionalak / itxura
- ◆ ezaugarri teknikoak: sormena
- ◆ ezaugarri teknikoak: giza eta material baliabideak
- ◆ ezaugarri teknikoak: epeak, kronograma
- ◆ ezaugarri teknikoak: zerbitzuaren kalitatea
- ◆ ezaugarri teknikoak: saldu osteko zerbitzua
- ◆ ezaugarri teknikoak: afekzio murrizketa
- ◆ ezaugarri teknikoak: sorospen proposamena
- ◆ hobekuntzak
- ◆ bideragarritasun ekonomiko-finantzieroa
- ◆ enpresaren profila
- ◆ genero berdintasuna, ingurumenaren babesa, euskara
- ◆ burutzeko epea
- ◆ berme epea
- ◆ esperientzia berezia edo antzekoa
- ◆ eskuragarritasuna / gaitasun teknikoa
- ◆ beste batzuk

Datuak aztertuta, eta irizpide bakoitzaren pisu portzentuala ponderatu ondoren, prezioaren irizpideak jarraitzen du izaten pisu portzentual nagusia esleipen bakoitzerako aplikatutako irizpideen ponderazioan aintzat hartu beharreko puntu guztiekiko.

Horrela, datuak bateratzen baditugu eta prezioaren irizpideak puntu guztiekiko hartzen duen portzentajea ponderatzen badugu, zerrenda hau lortzen dugu departamentuka:

- Ekon. Sust., Landa Ingur. eta Lur. Oreka (*) 100,00%
- Ogasuna eta Finantzak 64,11%
- Bide azpiegiturak 56,32%



- ❑ Kudeaketa Zentralizatua eta Kontratazio-Zentrala 51,24%
- ❑ Ingurumena eta Obra Hidraulikoak 50,67%
- ❑ Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa 45,80%
- ❑ Gizarte Politika 45,21%
- ❑ Diputatu Nagusia..... 43,13%
- ❑ Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola 24,80%
- ❑ Gobernantza eta Komunikazioa (*) 16,00%

(*) Kontratu bakarrari dagokion datua da

Datuen azterketatik departamentu guztietan, Gobernantza eta Gizartearekiko komunikazioko Departamentua ezik, salneurriaren irizpidea hasieran pisu handiena ematen zaiola baieztatzen da.

Salneurriaren pisu ponderatuko irizpidearen datuak kontratu motaren arabaera batzen baditugu, Obretan eta Zerbitzuetan putuazio adierazgarriena proposamen ekonomikoa eraman duela ikusten da, protzentai hauekin:

- ❑ Obrak% 57,85
- ❑ Zerbitzuak% 49,86


Hornidura kontratuetan, adierazitako ponderazioa % 37,27raino jaisten da eta Ezaugarri Tekniko funtzional/estetikoak aurreratzen du % 52,77arekin.

Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

DIPUTATU NAGUSIA

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	43,13
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	7,36
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	2,22
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	3,79
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	30,70
11 HOBEKUNTZAK	8,12
31 ESPERIENTZIA BEREZIA EDO ANTZEKOAK	4,68
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

KULTURA TURISMO GAZTERIA ETA KIROL

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	24,80
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	18,90
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	39,91
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	4,32
11 HOBEKUNTZAK	12,07
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

GOBERNANTZAKO ETA GIZART. KOMUNIKAZIOKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	16,00
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	77,00
8 EZAUGARRI TEKNIKOAK: SALDU OSTEKO ZERBITZUA	2,00
16 BERME EPEA	5,00
GUZTIRA	100,00






Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

EKON. SUSTAPENEKO, L. INGURUNEKO ETA L. OREKAKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	100,00
GUZTIRA	100,00




■ 1. PROPOSAMEN EKONOMI

Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	45,80
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	35,04
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	3,46
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	0,48
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	1,37
11 HOBEKUNTZAK	6,95
15 BURUTZEKO EPEA	1,49
16 BERME EPEA	3,62
17 BESTE BATZUK	1,78
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

OGASUNA ETA FINANTZAK

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	64,11
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	12,74
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	3,51
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	10,71
11 HOBEKUNTZAK	1,91
14 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA, EUSKARA	3,51
17 BESTE BATZUK	3,51
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

BIDE AZPIEGITURETAKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	56,32
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	20,59
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	0,37
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	0,70
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	13,42
9 EZAUGARRI TEKNIKOAK: AFEKZIO MURRIZKETA	0,58
11 HOBEKUNTZAK	0,17
14 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA, EUSKARA	7,71
17 BESTE BATZUK	0,15
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

GIZARTE POLITIKAKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	45,21
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	31,34
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	4,10
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	5,95
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	0,42
8 EZAUGARRI TEKNIKOAK: SALDU OSTEKO ZERBITZUA	0,02
11 HOBEKUNTZAK	0,16
14 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA, EUSKARA	12,73
16 BERME EPEA	0,06
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

INGURUMENENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	50,67
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	13,71
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	6,58
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	0,27
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	17,24
9 EZAUGARRI TEKNIKOAK: AFEKZIO MURRIZKETA	3,83
11 HOBKUNTZAK	5,84
16 BERME EPEA	1,85
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Departamentuaren arabera

ZERBITZU OROKORRAK

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	50,00
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	4,76
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	33,65
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	2,38
8 EZAUGARRI TEKNIKOAK: SALDU OSTEKO ZERBITZUA	8,41
14 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA, EUSKARA	0,79
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Kontratu motaren arabera

Obrak

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	57,85
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	27,23
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	1,24
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	0,75
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	5,84
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	0,41
8 EZAUGARRI TEKNIKOAK: SALDU OSTEKO ZERBITZUA	0,04
9 EZAUGARRI TEKNIKOAK: AFEKZIO MURRIZKETA	2,44
11 HOBEKUNTZAK	1,31
14 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA, EUSKARA	1,92
16 BERME EPEA	0,51
17 BESTE BATZUK	0,47
GUZTIRA	100,00




Esleipen irizpideen ponderazioa

Kontratu motaren arabera

Hornidurak

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	37,27
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	52,77
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	2,17
8 EZAUGARRI TEKNIKOAK: SALDU OSTEKO ZERBITZUA	5,58
16 BERME EPEA	2,21
GUZTIRA	100,00



■ 1. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

■ 16. BERME EPEA

■ 3. EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA

■ 7. EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA


■ 8. EZAUGARRI TEKNIKOAK: SALDU OSTEKO ZERBITZUA

Esleipen irizpideen ponderazioa

Kontratu motaren arabera

Zerbitzuak

Esleipen irizpidea	%
1 PROPOSAMEN EKONOMIKOA	49,86
2 EZAUGARRI TEKNIKOAK: METODOLOGIA	22,09
3 EZAUGARRI TEKNIKOAK: FUNTZIONALAK/ITXURA	1,37
5 EZAUGARRI TEKNIKOAK: GIZA ETA MATERIAL BALIABIDEAK	2,38
6 EZAUGARRI TEKNIKOAK: EPEAK, KRONOGRAMA	2,26
7 EZAUGARRI TEKNIKOAK: ZERBITZUAREN KALITATEA	11,05
9 EZAUGARRI TEKNIKOAK: AFEKZIO MURRIZKETA	0,03
10 EZAUGARRI TEKNIKOAK: SOROSPEN PROPOSAMENA	0,02
11 HOBEKUNTZAK	0,84
14 GENERO BERDINTASUNA, INGURUMENAREN BABESA, EUSKARA	9,90
15 BURUTZEKO EPEA	0,02
16 BERME EPEA	0,02
17 BESTE BATZUK	0,03
31 ESPERIENTZIA BEREZIA EDO ANTZEKOA	0,12
GUZTIRA	100,00





3.2.7.- ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK

Aurreko puntuan jasotakoari jarraituz, eskaintzarik merkeenari esleitutakoa aztertzeko, kontuan hartu dira prozedura irekiaren bidez izapidetutako kontratueta erabilitako esleipen irizpideak bakarrik.

Prozedura horren bidez esleitutako 67 loteetatik, 19 alditan eskaintza bakar bat aurkeztu da (osoaren % 28,36). 18 alditan lotea eskaintzarik merkeenari esleitu zaio (esleipen irizpideak eta irizpide ekonomikoa bat datoz), hau da, osoaren % 26,87). 12 aldiz lotea eskaintzarik garestienari esleitu zaio, hau da, osoaren % 17,91.

DEPARTAMENTO	Lote kop.	Eskaintza bakarra.	%	Eskaintza merkeenari esleituak	%	Eskaintza merkeenari garest.	%
Diputatu Nagusia	6	2	33,33	3	50,00	1	16,67
Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirola	11	4	36,36	3	27,27	4	36,36
Gobernantza eta Gizart.ko Komunikazioa	1	1	100,00				
Ekon. Sust., Landa Ingur. eta Lur. Oreka	4	2	50,00	1	25,00		
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	5	2	40,00	1	20,00	2	40,00
Bide Azpiegiturak	25	1	4,00	7	28,00	2	8,00
Gizarte Politika	6	3	50,00			2	33,33
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	5	1	20,00	2	40,00	1	20,00
Kudeaketa zentralizatua	4	3	75,00	1	25,00		
GUZTIRA	67	19	28,36	18	26,87	12	17,91

Diputatu Nagusiaren alorra eta Ingurumena eta Obra Hidraulikoak kontratazioetan merketasunagatik nabarmentzen dira, loteetako ehuneko berrogieta eta berrogeia eskaintza merkeenari esleitu bati diote.

3.3.- 2017KO EKITALDIAN ONARTUTAKO ESPARRU-AKORDIOAK

Lehenago adierazi denez, memoria hau lantzeko zer kontratu hartu behar ziren kontuan zehaztearren, GFaren gardentasun atarian jarduera kontraktualari buruzko informazioan sartu beharreko kontratuak aukeratzeko erabilitako irizpide berberak



erabili dira. Horregatik, esparru-akordioei buruzko datuak kontratazio prozeduretatik aparte aurkezten dira, eta esparru-akordio horietatik eratorritako kontratuak prozedura negoziatu bidez tramitatutako kontratuen barruan sartu dira.

Ondoren aurkeztutako taulan, desberdindu dira Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaiaren bitartez tramitatutako esparru akordioak eta Kontratazio-Zentralaren bitartez tramitatutakoak. Azken hori Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren bidez kudeatzen da, eta bertan lizitazioak tramitatzen dira, modu bateratuan, foru sektore publikoko eta udal sektore publikoko entitateentzat.

	Zenbatekoa	Guztiaren g/ %	Kop.	Guztiaren g/ %
ORGANOA				
Kontratazioen Zentrala	25.897.357,62	96,10	7	70,00
Zerb. Orokorretako Kontratazio Mahaia	803.952,16	2,98	2	20,00
Gizarte Politika	247.490,31	0,92	1	10,00
GUZTIRA:	26.948.800,09	100	10	100
KONTRATU MOTA				
Hornidurak.	22.050.303,55	81,82	5	50,00
Zerbitzuak	4.278.271,54	15,88	3	30,00
Pribatuak	620.225,00	2,30	2	20,00
GUZTIRA:	26.948.800,09	100	10	100
PROZEDURA				
Irekia	26.948.800,09	100	10	100

3.4.- GASTUAREN KUDEAKETARI LOTU GABEKO ONDARE KONTRATUAK

Dokumentu honen aurreko ataletan jaso eta aztertu diren datuak kontratu hauei dagozkie: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginari lotuta 2017ko ekitaldian prozedura irekia edo negoziatua erabiliz lizitatu diren kontratu administratiboak (ekitaldi horretan tramitatutako prozedura bakarrak).

Atal honetan jasota daude diru sarreraren kudeaketari lotutako ondare kontratuak, hala nola, alde batetik, baso aprobetxamenduen eta kontratu pribatuen lizitazioak eta gastuaren kudeaketarekin zuzeneko lotura duten ondare kontratuak (adibidez, ondasunen ordain trukeko eskurapenak) bestetik.



Era berean, atal honetan sartzen dira GFaren alde nahiz GFAk hirugarrenen alde egindako ondasun lagapenak, doakoak zein kostu bidezkoak.

3.4.1.- ONDARE KONTRATUAK

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak du kontratu hauek izapidetu eta kudeatzeko eskumena. Guztira, 15 espediente kudeatu dira, honela sailkatuta:

TIPO DE CONTRATO	Nº	IMPORTE
Algorri (Zumaia) lursailaren erosketa		69.000,00
Errotaburu 1 zbk.(Donostia) bi solairuen erosketa		1.750.000,00
Iraeban Baserriaren (Aretxabaleta) zuzeneko besterentzea		36.384,00
Andrearriaga (Irun) lursailean banatu gabeko partaidetzaren enkantea		226.270,00
Alokairuak	3	9.321,15
Jose Eladio margo bildumaren dohaintzaren onarpena		192.801,00
Tabakalera (Zine eskola) lokalaren erabilera lagapenaren onarpena		
Eraikin erabilpen lagapena	2	
Ibilgailuak. Dohako besterentzea	2	
Sozietateak. Kapital-zabalkuntza	4	10.648.850,00

Kontratu horien artean, nabarmentzen ditugu kapital zabalkuntzei lotutakoak:

- Bidegi SAren kapital zabalkuntza →6.156.000 euro
- Bidegi SAren kapital zabalkuntza →3.843.000 euro
- Centro Kursaal SAaren kapital zabalkuntza → 499.850 euro.
- BIC Gipuzkoa Berrilan SAren kapital zabalkuntza →150.000 euro.

3.4.2.- BASO APROBETXAMENDUAK

Baso aprobetxamenduekin zerikusia duten kontratuak administrazio kontratu bereziak dira, ondarearen kudeaketari lotuta daude, eta eragina dute diru-sarreraren aurrekontuan. Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak tramitatzen ditu. 2017an kontratu hauek egin dira:



PROZEDURA	Kop.	Lizitazio zenbatekoa	Esleipen zenbatekoa
Negoziatua publizitaterik gabe	3	145.557,16	146.863,27
Irekia	2	355.318,02	401.431,42
GUZTIRA	5	500.875,18	548.294,68



KONTRATUAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

Ekitaldia: 2017

Departamentua	Obrak	Hornidurak	Zerbitzuak	Zerbitzuen kudeaketa	Adm. berezia	Pribatuak	GUZTIRA
DIPUTATU NAGUSIA	- 0,00	- 0,00	36 3.988.147,08	- 0,00	- 0,00	- 0,00	36 3.988.147,08
KULTURA TURISMO GAZTERIA ETA KIROL	2 367.700,31	2 99.458,00	27 4.175.505,86	- 0,00	- 0,00	1 84.700,00	32 4.727.364,17
GOBERNANTZAKO ETA GIZART. KOMUNIKAZIOKO	1 232.413,22	6 1.152.422,35	7 418.660,00	- 0,00	- 0,00	- 0,00	14 1.803.495,57
EKON. SUSTAPENeko, L. INGURUNeko ETA L. OREKAKO	- 0,00	1 62.545,00	11 771.922,90	- 0,00	- 0,00	- 0,00	12 834.467,90
MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO	4 1.245.977,19	- 0,00	14 999.451,00	- 0,00	- 0,00	- 0,00	18 2.245.428,19
OGASUNA ETA FINANTZAK	- 0,00	1 98.340,21	4 470.508,66	- 0,00	- 0,00	- 0,00	5 568.848,87
BIDE AZPIEGITURETAKO	36 18.199.312,31	- 0,00	20 48.512.009,67	- 0,00	- 0,00	- 0,00	56 66.711.321,98
GIZARTE POLITIKAKO	4 1.793.885,53	- 0,00	18 32.934.996,38	- 0,00	- 0,00	- 0,00	22 34.728.881,91
INGURUMENeko ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO	5 3.348.507,92	- 0,00	23 1.811.653,86	- 0,00	- 0,00	- 0,00	28 5.160.161,78
ZERBITZU OROKORRAK	1 83.006,00	15 21.729.225,59	9 29.895.557,61	- 0,00	- 0,00	1 305.085,00	26 52.012.874,20
GUZTIRA	53 25.270.802,48	25 23.141.991,15	169 123.978.413,02	- 0,00	- 0,00	2 389.785,00	249 172.780.991,65



KONTRATUAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

Ekitaldia: 2018

Departamentua	Obrak	Hornidurak	Zerbitzuak	Zerbitzuen kudeaketa	Adm. berezia	Pribatuak	GUZTIRA
DIPUTATU NAGUSIA	- 0,00	- 0,00	3 3.254.244,00	- 0,00	- 0,00	- 0,00	3 3.254.244,00
KULTURA TURISMO GAZTERIA ETA KIROL	- 0,00	1 49.962,31	15 8.131.468,47	- 0,00	- 0,00	- 0,00	16 8.181.430,78
GOBERNANTZAKO ETA GIZART. KOMUNIKAZIOKO	- 0,00	4 258.675,00	4 1.279.191,32	- 0,00	- 0,00	- 0,00	8 1.537.866,32
EKON. SUSTAPENeko, L. INGURUNeko ETA L. OREKAKO	- 0,00	1 60.000,00	5 169.882,00	- 0,00	- 0,00	- 0,00	6 229.882,00
MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO	5 1.976.655,54	- 0,00	13 2.277.800,10	1 101.669.487,07	- 0,00	3 1.619.077,04	22 107.543.019,75
OGASUNA ETA FINANTZAK	1 809.597,73	- 0,00	2 928.599,95	- 0,00	- 0,00	- 0,00	3 1.738.197,68
BIDE AZPIEGITURETAKO	19 25.288.035,94	1 59.895,00	9 51.629.249,91	- 0,00	- 0,00	- 0,00	29 76.977.180,85
GIZARTE POLITIKAKO	- 0,00	- 0,00	10 23.726.465,07	- 0,00	- 0,00	- 0,00	10 23.726.465,07
INGURUMENeko ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO	11 3.001.653,70	- 0,00	2 319.016,50	- 0,00	- 0,00	- 0,00	13 3.320.670,20
GUZTIRA	36 31.075.942,91	7 428.532,31	63 91.715.917,32	1 101.669.487,07	- 0,00	3 1.619.077,04	110 226.508.956,65



KONTRATUAK, ESLEITZEKO PROZEDURAREN ARABERA

Ekitaldia: 2017

Departamentua	Irekia	Murritzua	Negoziatua publizitatua	Negoziatua ez- publizitatua	GUZTIRA
DIPUTATU NAGUSIA	8 2.304.357,08	- 0,00	- 0,00	28 1.683.790,00	36 3.988.147,08
